

Sebastian Eizagirre Martija Salbide

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1942-2014)*

Aurkibidea

Biografia



Salbide baserrian jaioa, gazterik hasi zen fabrian lanean. Hala ere, baserriko bizimodua ez zuen sekula utzi. Salbide eta Azken Portu inguruaz hainbat kontu azaldu ditu. Bere aita Pedro Joxe Eizagirre zen, eta 1987ko Zarauzko bekarako elkarriketatu zuten.

Zintak

ZAR-049

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2007-02-13
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Salbide ingurutik kalerainoko etxe eta lantegiak

- **Erref:** ZAR-049/002
- **Iraupena:** 0:10:00. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Salbide inguruan zeuden etxe eta lantegiak deskribatzen hasten da eta kalez kale erdiguneraino zeudenak izendatzen ditu.

2. "Sección Femenina" ren egoitza Zarautzen

- **Erref:** ZAR-049/003
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

<p>1951. urte inguruan "Sección Femenina" inauguratzera Franco etorri zen. Eskolatik jai eman zieten egun hartan Francori txaloak jotzera joan zitezten. Uda garaian, kanpotik etorritako 400 neska inguru hartzen zituzten etxe hartan "Formación del espíritu Nacional" zen irakasgai nagusia.</p>

3. "Camino del cementerio" deitzen zen Salbide kalea

- **Erref:** ZAR-049/004
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Gaur egungo Salbide kalea "Camino de cementerio" deitzen zen. Inguruneari, orokorrean, Salbide deitzen zitzaion. Fabrikak eraikitzen hasi zirenean, bertako iturri eta aska lekuz aldatu behar izan zituzten.</p>

Transkripzioa

-Inguruak ze izen zeukan? Salbide?

-Ez, e bueno kale horrek porke nik pixkat delimitatu det baserria hemen

dao ta oain hasten naiz kalea beira. Kale horrek izen zun “Camino del cementerio”. Ez zaukan beste izenik ta guri esan “Camino del cementerio número veinticinco”, hogeita bosta. Baiño orduan dana erderaz nola in ber zan... Eta ni gogoratzen naiz gero obligatu zituen baserriyak bakoitzai bere izena jartzea. Eta eman zizkion bakoitzai hola tables batzuk izenakin ta hori jartzen geñun izenakin ta hamen dao ikusi itea gaiñea nola daon. Baiño zan “Camino de Salbide número veinticinco, oi digo Camino del cementerio número veinticinco”.

-Baiño beste izenik ez zeukan inguruak? Salbide esaten zan.

-Bueno ee bai Salbide, Salbideko erreka, Salbideko iturriya ta gero Salbideko fabrikak.

-Eta iturriyak zer zan beti hor izandakoa edo...

-Iturriyak daka bere historiya. Niik ezagutu nunian, Salbidetik ehun bat metrora desplazatuta Arzallusenea, ferrokarril aldea. Baiño horrek bere esplikazioa daka: Salbiden onduan oain rotonda daon lekuan, ba rotonda nola da erdiyan txalupa batekin ta? Han zeon gure etxian onduan, gure terrenotan aska behiak-eta ura edaten zuena. Ta iturriyan muturra re bai. Baiño fabrikak in zianian, kamioiak pasatzian nola puskatu iten zuen, in zuen hartu, desbiatu, bi fabrikak pasa eta Arzalluseneko aurea eaman, ta iturriya oain daon lekuan gutxi gorabehera han zan. Ta Zarautzen kriston restrikiyuak eta hola izaten zian, udaran iturri harta ba eunak zianigual eon ber zenun berrogeita bost minutu botella bat ura betetzeko.

4. Salbideko labaderoak 25 harri

- **Erref:** ZAR-049/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Salbideko arropak garbitzeko harraska oso handia zen. Herriko kontu eta esames guztiak entzun zitezkeen bertan. Zarauzko hotelek ere han garbitzen zituzten arropak. Lehenengo harrietan kokatzeko lehentasuna ematen zitzaaien hauei. Abantaila honek eraginda, eztabaida handiak sortzen ziren.

5. Urak hartzen zuen sarri Salbide ingurua

- **Erref:** ZAR-049/008
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:14:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Labaderoa zegoen ingurua urak hartzen zuen Zarautzen euri asko egiten zuen bakoitzean. Horietako batean, "Sección Femenina"ren egoitzako pareta bota zuen urak. Azpian zeuden txaboletako zerriak Azpen Porturaino igerian iritsi omen ziren.

6. Zarautz toponimoaren jatorriaz

- **Erref:** ZAR-049/009
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:14:53. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Zarautz osoa zingira bat zen. Izena ere hortik datorkio: "Txara-utz"ek erdaraz "sitio inundable lleno de zarzas" esan nahi duela dio hiztunak.

7. "Katxina" eta "Txiliku"

- **Erref:** ZAR-049/010
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

"Katxina"ri buruzko anekdota kontatzen du. Zarauzko ezkontzagina zen: abilitaderik ez zuten mutilzaharrei andregaia bilatzen omen zien. Jesus Olaizola, "Txilikukoa", zen beste pertsonaia ezagun bat. Sebastianen aitarekin batera, inoiz ezagutu duen adarjotzailerik handiena omen zen.

8. Iribarrek, baratzea baino nahiago futbola

- **Erref:** ZAR-049/013
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Iribar atezaina baserritarra zen. Aitak eskolatik irten eta, baserrira lanera itzuli aurretik, hondartzara futboleko jolastera joaten zela jakin zuenean, jipoitu zuela gogoan du Sebastianek.</p>

9. Gauero esnea Mondragonesenera

- **Erref:** ZAR-049/016
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Gauero litro eta erdi esne Salbidetik "Bar Mondragonesenera" ekartzeagatik propina edo pintxo ematen ziotenez, gustuko lana zuen. Tabernaren izenaren jatorriaz ere ari da.

10. Kale eta plazen izenak

- **Erref:** ZAR-049/018
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Salbide inguruko baserrien izenak. Zarauzko kale eta plazen izenen zergatia azaltzen du.

11. Uholdeak sarri-sarri

- **Erref:** ZAR-049/019
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Uholdeak sarri gertatzen ziren Zarautzen. Tailer inguruan metro bat ur noiznahi aurki zitekeen. Orduan ere lanera bizikletaz joaten zen.

12. Alemaniar lantegi asko Zarautzen

- **Erref:** ZAR-049/021
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:39:07. **Bukatu:** 00:43:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Erriberak non zeuden markatzen ditu mapa batean. Bertako lantegien izenak eta ezaugarriez ari da. Antza denez, gerra garaian ihesi joandako alemaniar askok itsasoa eta muga gertu zituelako Zarautz aukeratu zuten negozioak jartzeko (Taf, Keller, Pielhoff, etab.). Makina handiak nola garraiatzen zituzten kontatzen du.

13. "Koreanoek" erakutsi ziguten tomatea jaten

- **Erref:** ZAR-049/022
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:43:31. **Bukatu:** 00:46:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Tailerrak Zarautzen gauza berria dira. Batez ere baratzetik bizi izan dira Zarautzarrak betidanik. Kalitate oso oneko barazkiak lortzen ziren kostaldeko herrietan, tomateak batez ere.

14. Extremaduratik etorritako langileak

- **Erref:** ZAR-049/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:46:42. **Bukatu:** 00:48:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Extremaduratik jende asko etorri zen Zarautzera. Gehienak, Getariako errepidearen eraikuntzan lan egitera. Apurka-apurka, lan baldintzak hobetze aldera, fundiziora pasatzen ziren eta ahal zela, zurgintzara.

15. Nobizioak peoi lanetan

- **Erref:** ZAR-049/024
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:48:17. **Bukatu:** 00:50:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Zarauzko lanbide eskolako peoi lanak fraideetako nobizioek egiten zituzten.

16. Santa Marinako jaiak

- **Erref:** ZAR-049/025
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:50:19. **Bukatu:** 00:52:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Santa Marinako jaiak urteko onenak zirela dio. Hauen antolaketaz hitz egiten du. Bere aitona eta osabak hartu zuten parte Santa Marinako ermitaren eraikuntzan hargin lanetan. Berezia da berarentzat.</p>

Transkripzioa

-Santa Marinako festak, zuek Santa Marina ingurukuak zeate ezta?

-Bai, urteko festaik earrenak.

-Bai, ezta?

-Kristonak, baiño guretzako zian, de dios, kristonak. Eta gauza bat esan ber da e, hor bi-hiru familik eukiko due merito bat, konserbatzeko oain arte. Porke oaindikan bakizu, udaran sarrera Santa Marinako festak dia. Baiño Santa Marinako festak lehen zian, erderaz, "la casa por la ventana". Nik uste det familiya pilla batek urte guztiyan aurrezten zun dana hor gastatzen zula. Bueno baiño hor zauden, karo hor gerran bukaeran "la voz cantante", ba eramaten zuen "la carlistada", gure etxeukuak e bai hola zian e osea ke, hor ez deu ezer esango: Kapaxkuak, Agirrezabalaga, Manuel Marinekuak, Aranburus, Joxe de Benito ta konpaiñiya, Patxi pelukerua-barberua, instituziyo bat izan zan hor, instituziyo bat! Eta hoiek festa hori zaindu zuten baiña... baiño, baiño izugarri, izugarri e. Ta ni akordatze naiz beak zian Manuel Marinekuak ta Kapaxkuak eta zian garai hortako guretzat gigantiak "uno ochenta y seis, uno ochenta y ocho"ko mutillak. Garai hortan ba ni "uno setenta y siete" naiz, ba bueno. Eta hoiek jazten zian pailazo ta jazten zian danetik ta iten zian festak, baiño ikusgarriyak e! Ta oain noizian behin esaten dezu "ze festa politak in dituen, lokotxak-ta dena jarri ditue", ba Santa Marinan korrika in ta premiyo bat etxea eramatia zan... "dios! La de dios" e! Bua, bua, ez ez oso barriyo atsegiña izan da guretzako, sentido guztitan. Ta geo gañea badaka konotaziyo bat. Gure aitona, nik ez nun ezautu, ta nere osaba gerran hil zana zian hargiñak, eta Santa Marinako ermita in zuen, beran taldian in zun, harri lanian. Eta gu beti konsideratu gea Santa Marinakuak. Klaro, nik lehengo baten esaten nion, Mirenei esaten nion bezela, guk oso ondo manejatzen gendun "los tempos" esaten dan bezela, nahi gendunian giñan baserritarrak ta nahi gendunian giñan kalekuak. Baiño kalia, kalia nahiko gaixki pasatzen gendun, burla ta zea asko.

17. Auzolanean jarduteko "bula" ordaindu behar

- **Erref:** ZAR-049/027
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:58:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Auzolanean egiten ziren lan desberdinak izendatzen ditu. Batzuetan eskolan baimena eskatzen zuten auzolanean jarduteko. Elizan baimena eskatzeari "bula" esaten zitzaion. "Bula" ordainduta mezatara ez joateagatik egiten zenuen bekatutik libre geratzen zinen.

18. Mahatsa jotzean umeak gizondu

- **Erref:** ZAR-049/028
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 00:59:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Adinaren arabera banatzen ziren lanak. Mahatsa jotzeko gonbidapena jasotzen zuten mutikoak gizon kontsideratzen ziren ordutik aurrera. Mahatsa zapaltzeko prozesua deskribatzen du.

19. Txakolina etxerako

- **Erref:** ZAR-049/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:59:32. **Bukatu:** 01:01:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Hamabi etxetan egiten zen txakolina Zarautzen. Normalean, etxerako ekoizten zuten denek. 400 botila inguru egingo zituzten urtean Salbiden. Sebastianen aitak, parean tokatzen zen edonori botila bat ematen zion. Gaur egun galdu egin da ohitura hori.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-03-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com